

UDAN IGERILEKUAK ERABILTZEKO ABONU SOZIALA

Ondorengo baldintzetan aurkitzen diren pertsonak eskatu ahalko dute:

- a) Berme Errenta jasotzen duten familia unitateek, adin txikikoak haien kargura badute.
- b) 4.947,48 euro edo gutxiagoko per kapita errenta duten familia unitateek. Azken errenta aitoreneko diru-sarreraren arabera eta adin txikikoak haien kargura badute.
- c) Udarako familia harrera bidez adin txikikoak dituzten familia unitateek.

Familia unitate bakoitzari, adinez txikiko bakoitzeko zein tutoretza legala duen heldu bakoitzeko pase bat emanen zaie.

ESKABIDEA EGITEKO DATA: maiatzaren 24tik 28ra, Uharte eta Esteribarko Gizarte Zerbitzuko bulegoetan, 9:30etik 11:30erako ordutegian.

EKARRI BEHARREKO AGIRIAK:

Eskabide fitxa (jaso Gizarte Zerbitzuko bulegoetan)

Agiri pertsonalak (NAN, Familia Liburua, etab.)

2020ko errenta aitorenena. Hau ez izatekotan:

- Azkeneko 6 nominak
- Herri ogasunaren agiri bat pertsonak ez duela ezer aurkeztu behar ziurtatzen duena